

Gure burua defendatzeko beharra | La necesidad de defendernos

IRUÑERRIKO GAZTETXEAK :: 11/03/2019

Sabemos que remar en un sentido que favorece a la clase trabajadora choca con las instituciones que tienen como objetivo mantener el orden social

Castellano

En los últimos meses la realidad nos ha enseñado mucho a lxs miembros de los gaztetxes de Iruñerria, y escribimos esta nota con la intención expresarlo.

El riesgo continuo de ser desalojado está presente en el mismo ser y la práctica de los gaztetxes, ya que sabemos que remar en un sentido que favorece los intereses de la clase trabajadora choca con las instituciones que tienen como objetivo mantener el orden social (y por tanto, la opresión de la clase trabajadora).

Pero el único objetivo de aquellos que son dueños del territorio y los medios productivos no es asegurar el control de los espacios que recuperamos, porque aunque muchas veces saquen proyectos de debajo de la mesa para echarnos, en el contexto de la crisis capitalista not tienen capacidad de dar uso a todos sus recursos. Entonces, si en la base de los ataques que recibimos no está siempre la recuperación (o reapropiación) de los recursos físicos, porque nos quieren expulsar de los espacios que controlamos? Está claro, para desarticularnos políticamente.

Pero no es solo eso. Muchas veces no pueden echarnos de nuestros espacios con inmediatez y ponen en marcha diversos mecanismos para anular nuestra potencialidad política. Y ante eso también nos tenemos que defender.

En estos últimos meses hemos tenido ejemplos de ello en Iruñerria. Para empezar, la ordenanza municipal que estableció el Ayuntamiento de Pamplona en abril, que prohibía hacer actos públicos a los gaztetxes de su territorio. Hoy en día, sobre todo afectar al gaztete de la Rochapea, pero es un ataque frontal a todos los gaztetxes y centros autogestionados el hecho de abrir la opción para que el enemigo utilice esa herramienta. Lo hemos podido comprobar, por ejemplo, en la prohibición de la bertso-afari organizada en solidaridad con el gaztetxe Maravillas, mediante la amenaza a los bertsolaris; o cuando se hizo lo mismo con un concierto a mediados de febrero, que aun habiéndolo hecho en otro gaztetxe, identificaron a la gente que estaba transportando material, llegando a entrar en el gaztetxe con sesión de fotos incluida. Ahí queda clara la intencionalidad política de la ordenanza, porque prohibieron la cena en solidaridad con Maravillas, y no lo pudieron hacer, por falta de legitimidad, en el caso de la multitudinaria comida del 8 de marzo.

Otro ataque claro que busca nuestra desarticulación política más allá de recuperar nuestros espacios es el proceso represivo jurídico-económico articulado a raíz del desalojo de Maravillas. Han cosido a multas elevadas a mucha personas que fueron parte de la fuerza

en defensa de Maravillas y contra su desalojo (en total más de 110.000€), y más de 35 personas van a ser juzgadas, una de ellas con riesgo de ingresar en prisión. Queremos aprovechar estas líneas para recordar que hoy, 11 de marzo, comienzan las declaraciones y que continuarán el martes 12 y el jueves 14; y para animar a mostrar solidaridad con las personas de declararán.

Euskera

Azken hilabeteetan errealitateak irakaspen handiak eman dizkigu Iruñerriko gaztetxeetako kideoi, eta horiek plazaratzeko asmoz idazten dugu ohar hau.

Gaztetxeen izaeran eta jardunean bertan presente dago uneoro kanporatua izateko aukera, bai baitakigu langileriaren mesedetan artikulatutako proiektu edo tendentzia politiko baten norabidean aritzeak talka egiten duela ordena soziala (eta beraz, langileriaren zapalketa) mantentzea helburu duten instituzioekin.

Baina lurraldearen eta bertako ekoizpen bitartekoen jabe direnen helburu nagusia ez da guk berreskuratutako espazioen kontrola bermatzea, sarritan gu kanporatzeko mahai azpitik ustezko proiektuak ateratzen badituzte ere, krisi kapitalistaren testuinguruan ez baitute gaitasunik haien baliabide guztiei erabilera emateko. Gure aurkako erasoen jatorria beti ez badago baliabide fisikoen berreskurapenean (edo birdesjabetzean), orduan zergatik kanporatu nahi gaituzte guk kontrolatzen ditugun guneeetatik? Argi dago, gu politikoki desartikulatzeke.

Baina ez hori bakarrik. Askotan ezin gaituzte gure guneeetatik berehalakoan bota eta mota askotako mekanismoak martxan jartzen dituzte, gure potentzialitate politikoa bertan behera uzteko. Eta horien aurrean ere gure burua defendatu behar dugu.

Horren zenbait adibide izan ditugu Iruñerrian azken hilabeteetan. Hasteko, apirilean Iruñeko Udalak ezarri zuen hiri-ordenantza dugu, bere eremuan zeuden gaztetxeei ekimen publikoak egitea debekatzen ziena. Egun, batez ere, Errotxapeako gaztetxeari eragiten dio horrek, baina etsaiak tresna hori erabiltzeko bidea irekitzea gaztetxe eta guneei autogestionatu guztien aurkako eraso zuzena da. Hala ikusi dugu Maravillas gaztetxearekin elkartasunez antolaturiko bertso-afaria debekatu zenean bertsolariak mehatxatuz; edo antzeko gauza egin zenean otsaila erdialdean antolaturiko kontzertu baten kasuan, beste leku batean eginda ere, materiala garraiatzen ari zirenak identifikatu eta gaztetxe barrura sartzerantz iritsiz, argazki-saio eta guzti. Erasoen izaera erabat politikoa agerian geratzen da, Maravillasen elkartasunean prestatutako bertso-afaria debekatu baitzuten, baina M8an egin zen bazkari jendetsua erasotzeko zilegitasun faltan, hor ez zuten eskua sartu.

Gure espazioetatik kanporatzeaz gain gure desartikulazio politikoa bilatzen duen beste eraso argia dugu Maravillasen desalojoen harira abiatutako prozesu errepresibo juridiko-ekonomikoa. Gaztetxearen aldeko eta desalojoaren aurkako indarraren parte izan ziren kideei isun ekonomiko handiak jarri zaizkie (osotara ia 110.000€ izan daitezke), eta 35 pertsona baino gehiago epaituko dituen epaiketa prozesua martxan jarri dute, pertsona bat espetxeratua izateko arriskua dagoelarik. Bide batez, lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu gaur, martxoaren 11n deklarazioak hasiko direla eta astearte 12 eta ostegunean 14an jarraituko dutela gogorarazi eta deklaratu dutenei elkartasuna adieraztera dei egiteko.

Hortaz, esandakoarekin argi geratzen da gaztetxeen defentsa ez dela hauen biziraupen fisikora mugatzen, edo desalojoak ekidin eta hauei aurre egitera, baizik eta gaztetxeen biziraupen eta garapen politikoa bermatzea ere defentsa dela, gure desartikulazio politikoa zuzenki konfrontatuz. Iruñerriko gaztetxeak horretan gaude eta horretan trebatuko gara, aipaturiko prozesu guztien aurkako borroka abiatuko baitugu.

<https://eh.lahaine.org/gure-burua-defendatzeko-beharra-la>